

ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

0 atala administrazioak beteko du.

*Zenbakizko datuak eskuinera doitu*ko dira; *hartara*, *hutsik utzi behar den laukitxorik izanez gero*, *ezkerrekoak utziko dira hutsik*.

NANaren laukitxoak betetzeko adibidea:

								Z
--	--	--	--	--	--	--	--	---

ESKATZAILEAREN DATUAK. Senitartekoa zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duen pertsona da eskatzailea. Odol-ahaidetasun hau egon behar da bi pertsona horien artean, hau da, senitartekoaren eta eskatzailearen artean:

MENDETASUNAREN kasuan

- a) odolkidetasunezko lehen edo bigarren mailakoa:
- aita edo ama
 - semea edo alaba
 - aitona edo amona
 - biloba
 - anaia edo arreba
- b) ezkontza-ahaidetasunezko lehen mailakoa:
- aitagarreba edo amagarreba
 - suhia edo erraina

OSASUN EGOERA OSO LARRIAREN kasuan

- a) semea edo alaba
- b) Ezkontidea edo izatezko bikotekidea

NANa/ANTa: eskatzaileak espainiar herritartasuna badu, bere NAN-zenbakia idatzi beharko du, eta ez badu, ANT-zenbakia.

Familia-egoitza: atal honetan adierazten den helbidea jakinarazpenak bidaltzeko ere erabiliko da.

FAMILIA UNITATEARI BURUZKO DATUAK: adierazi familia-unitatea edo familia-unitateko kideren bat egoera hauetakoren batean dagoen: familia ugaria, familia gurasobakarra, genero-indarkeriaren biktima, desgaitasun- edo mendekotasun-egoeran.

Familia gurasobakartzat jotzen dira seme-alabak ekonomikoki soilik eskatzailearen mendeko diren familia-unitateak.

FAMILIA-UNITATEAN BIZI DIREN SEME-ALABAK: eskatzailearen familia-unitatean bizi diren seme-alaba guztien berri eman behar da. Datu hori ezinbestekoa da familia-errenta estandarizatu kalkulatzeko.

ZAINDU BEHARRA DAGOEN PERTSONAREN DATUAK: mendetasun-egoeran (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen eta hori arautzen duen arautegiaren arabera) edo egiaztatutako osasun-egoera oso larrian daoen senitartekoa da.

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK: oharrak eta jakinarazpenak egiteko eskatzaileak hautatu duen modua.

HIRUGARRENEI ALTA EMATEKO FITXA: eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu behar den agiria da, eta dirulaguntza zer kontutan kobratu nahi den adierazteko balio du.

Kontua zer banku-erakundetan duzun, eskabideari erantsitako eredueta**ko** bat aukeratu beharko duzu, zure banku-erakundea hauetakoren bat den edo ez kontuan hartuta: KUTXABANK, LABORAL KUTXA, BANKOA, CAIXABANK, BBVA edo BANCO SANTANDER, POPULAR, SABADELL edo CAJA RURAL DE NAVARRA.

ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA

Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan (Zuzenean Zerbitzua) aurkez daiteke eskabidea.

ZUZENEAN zerbitzuaren bulegoak daude:
01005 Vitoria-Gasteiz, Ramiro Maeztu kalea,10
48011 Bilbo, Kale Nagusia 85
20004 Donostia, Andia kalea 13

ZUZENEAN, Herritarrentzako Zerbitzuaren informazio-telefonoa: 012

Eskabidea elektronikoki ere aurkez daiteke: www.euskadi/familia

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikulua zehaztutako organoen aurrean ere aurkez daiteke.

- Zuzentzen zaion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoa, eta 2.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozeinen erregistro elektronikoa.
- Posta-bulegoetan, araudiz ezarritako eran.
- Espainiak atzerrian dituen diplomaziako ordezkarietara edo kontsuletxeetako bulegoetan.
- Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAREN HASIERA: lan-murrizketan edo eszedentzian 59 egun segidan igarotakoan.

Epe hori ez-segidakoa izan daiteke, egoera hauetan:

- Aldizkako kontratu finkoa izenez gero.
- Eskatzailea enplegu-erregulazioko espediente baten eraginpean badago.
- Eskatzaileak, diruz laguntzeko jarduna izan den bitartean, greba-eskubidea baliatu badu.
- Eskatzaileak soldatarik gabeko baimen bat hartu badu.

Baliatzen denetik urtebete igaro baino lehen eskatu behar da diruz lagundu daitekeen jardunean emandako lanaldi bakoitzari dagokion laguntza.

Eskaera epez kanpo aurkezten bada (hau da, baliatu zenetik 365 egun baino gehiago igarotakoan), ez da adierazitako epetik kanpoko egunei dagokien laguntzarik emango.

ADIBIDEA:

MURRIZKETA/ESZEDENTZIA EGOERAREN HASIERA	ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA	
2019ko abuztuak 1	2019ko irailaren 29tik aurrera	2020ko abuztuaren 1era bitarte
2019ko apirilak 1	2019ko maiatzaren 30etik aurrera	2020ko apirilaren 1era bitarte

Dirulaguntza epea amaitu eta egun bat geroago eskatzen bada (lehenengo adibidean, 2020ko abuztuaren 2an), egun bati dagokion zenbatekoa soilik galduko litzateke. Abuztuaren 3an eskatuko balitz, bi egun galduko lirateke, eta horrela, hurrenez hurren.

OSO GARRANTZITSUA

Hurrengo laguntza-eskaerak (JARRAIPEN-ESKABIDEAK) azken dirulaguntza-eskabidea aurkeztu zenetik GUTXIENEZ LAU HILABETE igarotakoan aurkez daitezke, azken aldiari dagokion eskabidea den kasuan izan ezik.